

SOZIOLOGIA LIZENTZIATURAN ANTOLATU ZEN HIZKUNTZAREN SOZIOLOGIAREN IBILBIDEAREN BERRI

Iñaki Martínez de Luna
UPV/EHUko Soziologia Saileko irakaslea

0.- HIZKUNTZAREN SOZIOLOGIAREN IBILBIDEA: SARRERAKO GOGOETA

Ibilbide hau irakasle batzuen ekimena izan zen, eta lizentziatura horretan Renove izeneko moldaketak ireki zuen aukera baliatuz abian jarri zen. Hasiera hartako diseinua aurkezten dut hemen, non irakasgaiak, irakasleak, helburuak etab. agertzen diren.

Bertan agertzen ez den informazioa eta balorazioak, hauexek dira:

a.. Sorrera eta abiatze horietan, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko aginte-guneek ez zuten ezertan lagundu; bost axola zitzaien proposatutakoa, baldin eta baliabide gehiagorik eskatzen ez baziren. Ez dute, inondik inora, eskaintza berezi hori aintzakotzat hartu, ez beste unibertsitateen eskaintzatik bereizteko, ezta Euskal Herriko egoera linguistikoari ekarpen bat egiteko ere.

b.. Euskara hutsean eskaintzen zen ibilbidea izanik, bigarren mailakotzat, exotikotzat edo, jotzen zuten eta horren adierazgarri garbia zera da: hurrengo ikasturteko dozentzia eskaintzaren aurkezpenera gomitarik jaso ez izana ibilbide horretako arduradunek, behin baino gehiagotan. Hortaz, ikasleek ez zuten ofizialki horren berririk jasotzen.

c.. Ikasle kopuruen jaitsieraren ondorioz, irakasgaiak desagertzen joan dira, urtez urte, erabaki hori hartzerakoan irizpide ekonomiko hutsei erreparatuz. Aurten, ibilbideak hondoa jo du irakasgai bakarria eskainiz: Hizkuntza Komunitateak eta gatazka linguistikoak (Zesar Martínez).

d.. Aurrera begira, baliteke irakasgairan bat berreskuratzea, baina ez da erraza izango.

1.- IBILBIDEAREN IKASGAIK ETA IRAKASLEAK

(1999/2000 ikasturtea)

1. LAUHILABETEKOKAK

Hizkuntza Soziologia I: Hizkuntzaren teoria sozialak (Iñaki Martínez de Luna)

Hizkuntza Komunitateak eta gatazka linguistikoak (Zesar Martínez)

Hizkuntza egoeraren diagnostia, planifikazioa eta programen ebaluazioa (Kontxesi Berrio-Otxoa)

Sorrera eta abiatze horietan, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko aginte-guneek ez zuten ezertan lagundu; bost axola zitzaien proposatutakoa, baldin eta baliabide gehiagorik eskatzen ez baziren. Ez dute, inondik inora, eskaintza berezi hori aintzakotzat hartu, ez beste unibertsitateen eskaintzatik bereizteko, ezta Euskal Herriko egoera linguistikoari ekarpen bat egiteko ere.

*Ikasle kopuruen
jaitsieraren ondorioz,
irakasgaiak desagertzen
joan dira, urtez urte,
erabaki hori hartzerakoan
irizpide ekonomiko hutsei
erreparatuz. Aurten,
ibilbideak hondoa jo du
irakasgai bakarra
eskainiz: Hizkuntza
Komunitateak eta
gatazka linguistikoak
(Zesar Martínez).*

2. LAUHILABETEKOAK

Hizkuntza Soziologia II: Hizkuntz Politikak (Ander Iturrioz)

Hizkuntza gatazka eta hezkuntza sistema (Txoli Mateos)

Hizkuntza gizartean: gizarte guneak eta hizkuntza gutxiagotuak (Nekane Jausoro)

2.- IKASGAI BAKOITZAREN NONDIK-NORAKOAK

P42. Hizkuntzaren soziologia I: hizkuntzaren teoria sozialak

HAUTAZKOA, LAUHILEKO, KREDITUAK 6

HELBURU OROKORRAK:

Ikasleek hezkuntza sisteman zehar hizkuntzekiko izan dituzten ohiko harremanak hizkuntzalaritzaren edukiei (gramatika, ortografia etab.) eta bigarren nahiz hirugarren (eta abarren) hizkuntzen ikaskuntzari lotuak izan badira, hizkuntza gizartearen baitako osagaia den ikuspuntutik aztertuko da.

Zeregin honetan hizkuntza soziologia eta soziolinguistikaren arteko harremanetan nahiz ezberdintasunetan sakonduko da, batetik, eta soziologiak hizkuntza inguruan egin dituen saioren berri ere emango da, bestetik.

Helburu hau behar bezala burutzeko asmoz, hizkuntza eta gizarte egitura binomioari dagozkion oinarrizko kontzeptuak edota soziologiaren ikuspuntutik erabili ohi diren ikerkuntza-ildoak ere azalduko dira.

Teoriaren argira Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa eta honen inguruan burutu diren saio empirikoei buruzko hausnarketak egingo dira, material empirikoaren azterketak eta praktikaldiak azalpen teorikoekin tartekatuz.

EGITARAU TEORIKO-PRAKTIKOA:

1.- Hizkuntza Soziologiaren hastapenak

1.1.- Hizkuntza Soziologia zer den: Hizkuntza gizartean. Soziolinguistika eta beste diziplina akademikoen hizkuntzarekiko ekarpenak

1.2.- Oinarrizko kontzeptuak: Hizkuntza funtzioak. Elebitasuna eta diglosia.

2.- Hizkuntzen iraupen/ordezkapena

2.1.- Gizarte eragileen garrantzia: Aldagai soziologikoak. Etnizitatea eta taldenortasuna. Gizarte egitura eta hizkuntza

2.2.- Hizkuntza motibazioak: motibazio pragmatikoak, motibazio sinbolikoak eta beren eragina hizkuntza gutxiagotuetan.

3.- Hizkuntza gutxiagotuak eta gizarte ikerkuntza

3.1.- Hizkuntza soziologia eta ikerkuntzaren nondik-norakoak

3.2.- Euskararen inguruko saioak

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

ELORDUI, Agurtzane (1996), *Mailakako hizkuntz desagertzea: eragile soziolinguistiko eta ezaugarri soziolinguistiko nagusiak* in Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 19. zk.

ERIZE, Xabier (1997), Nafarroako euskararen historia soziolinguistiko (1863-1936). Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza. Iruñea, Nafarroako Gobernua.

FISHMAN Joshua A. (1979), *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid.

FISHMAN Joshua A. (1991), *Reversing language shift. Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon, Multilingual Masters 76.

ISASI BALANZATEGI, Xabier (1994), *Eskola hizkuntza(k) eta hizkuntz ordezkapena* in TANTAK, 12. zk.

JAUSORO, Nekane (1996), *La práctica discursiva y el interdiscurso. Una propuesta metodológica para la investigación social del euskera*. Leioa, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (Doktorego Tesiak).

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki, Nekane JAUSORO, Kontxesi BERRIOTXOA eta Ibon IDIRIN (1998), *Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa* in Bat Soziolinguistika Aldizkaria 26. zk.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki eta Nekane JAUSORO (1996), *Hizkuntzeko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean* in Bat Soziolinguistika Aldizkaria 18.zk.

MORENO FERNÁNDEZ, Francisco (1998), *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*. Barcelona, Ariel.

ODRIOZOLA, Joxe Manuel (1993), *Soziolinguistikaren atarian*. Bilbo, Euskaltzaindia.

ODRIOZOLA, Joxe Manuel (1997), *Iturri bila* in Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 22-23. zk.

SOLÉ i CAMARDONS, Jordi (1991), *Soziolinguistika gazteentzat*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, Soziolinguistika Saila.

SANCHEZ CARRION, Jose María (Txepetx) (1987), *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia-San Sebastian, Jose María Sanchez Carrión Ed.

P 3. Hizkuntza komunitateak eta gatazka linguistikoak

HAUTAZKOA, LAUHILEKO, KREDITUAK 6

HELBURU OROKORRA:

Komunitatea, gatazka eta aldaketa funtsezko kontzeptuak dira Soziologian. Hizkuntzaren soziologian nolako aplikazioa izan duten ezagutzea ikasgai honen helburu orokorra da. Asmoa, beraz, *hizkuntza komunitatea, hiz-*

Ikasleek hezkuntza sisteman zehar hizkuntzekiko izan dituzten ohiko harremanak hizkuntzalaritzaren edukiei (gramatika, ortografia etab.) eta bigarren nahiz hirugarren (eta abarren) hizkuntzen ikaskuntzari lotuak izan badira, hizkuntza gizartearen baitako osagaia den ikuspuntutik aztertuko da.

Zeregin honetan hizkuntza soziologia eta soziolinguistikaren arteko harremanetan nahiz ezberdintasunetan sakonduko da, batetik, eta soziologiak hizkuntza inguruan egin dituen saioen berri ere emango da, bestetik.

Komunitatea, gatazka eta aldaketa funtsezko kontzeptuak dira Soziologian.

Hizkuntzaren soziologian nolako aplikazioa izan duten ezagutzea ikasgai honen helburu orokorra da. Asmoa, beraz, hizkuntza komunitatea, hizkuntza gatazka, eta gatazkaren eraldaketa kontzeptuak hizkuntzaren soziologian nola definitzen diren aztertzea da.

kuntza gatazka, eta gatazkaren eraldaketa kontzeptuak hizkuntzaren soziologian nola definitzen diren aztertzea da.

Era berean, pentsamendu sozialean gatazka eta aldaketa sozialaren inguruan egon diren azkeneko garapen teorikoak ikusiz, hizkuntzaren arloan identifikatu daitezkeen interesgune berriak aztertuko dira.

EGITARAU TEORIKOA:

1. Hizkuntza komunitatea: Hizkuntza gizartearen funtsezko instituzio gisa. Komunitatea eta hizkuntza komunitatea. Hizkuntza komunitatearen egitura eta osagaiak. Hizkuntza komunitate mota ezberdinak eta hizkuntza komunitateen arteko harremanak.

2. Hizkuntza gatazkaren azterketa: Gatazka sozialaren definizioa eta gatazkaren inguruko ikuspegiak. Hizkuntza gatazkaren definizioa. Hizkuntza gatazkaren dinamika posibleak.

3. Hizkuntza gatazka eta gatazkaren eraldaketa positiboa: Gizarte-instituzioak: egonkortasuna eta aldaketa. Gatazka eta aldaketa: hizkuntza gatazkaren eraldaketa positiboa. Hizkuntzaren garapen osoa: faktore eragileak.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

FALCÓN, X. -bil- (1998): Lluís Aracilen idazlan hautatuak. Bilbo: UEU.

MOLL, T., Viana, A.(1989): Hizkuntz Komunitatea- La comunitat lingüística. Curs de Sociolingüística. Alzira: Bromera Argitaletxea.

HUDSON, R. A. (1981) La sociolingüística. Anagrama.

SANCHEZ CARRIÓN, J. M. (1987) Un futuro para nuestro pasado. Egilearen edizioa.

SOLE i CAMARDONS, J. (1991) Soziolinguística gazteentzat. Bilbo: UEU.

SZTOMPKA, Piotr. (1996) Sociología del cambio social. Madrid: Alianza.

DEL PINO, J. (1988) EL conflicto social. Malaga: UNED.

P 8. Hizkuntza egoeraren diagnosia. planifikazioa eta programen ebaluazioa

HAUTAZKOA, LAUHILEKOA, KREDITUAK 6

HELBURU OROKORRAK:

Hizkuntza gutxiagotu bat gizarte bizitzako funtzio ezberdinak normaltasunez betetzera iritsi dadin, zalantza barik, hizkuntza plangintzen beharra dago; planifikazio orokorraz gain, arlo eta eremukako planifikazioa (ikas-tetxeetan, lantokietan, administrazioetan...).

Hizkuntza gutxiagotu bat egoera horretatik aterako bada, helburu horixe duen hizkuntz politika bati jarraiki, hizkuntz teknikari batek, beste-

ak beste, neurriak taxutu, antolatu eta gauzatu beharko ditu.

Ikasgai honetan hizkuntz plangintza interbentzio kontziente lez ulertuko da, hizkuntz egoera baten eraldaketarako zehaztutako hizkuntza politika baten baitan, urrats antolatuak sistematizatzen dituen. Egoeraren diagnosian oinarrituz, aldaketak neurriak sistematizatzeak zertan datzan ikusteaz gain, plangintzen ebaluaketa egiteko lanabesak ezagutzea ikasgaiaren helburua litzateke.

EGITARAU TEORIKOPRAKTIKOA

1. Atala: Hizkuntz errealitatearen diagnostikoa. 1.1. Tokian tokiko hizkuntz errealitatearen analisia; ingurunearen ezaugarri soziologikoak, sendotasun eta ahulezien detektatze-lana; hizkuntzaren garapenerako aukerak eta mehatxuak. 1.2. Interbentzio esparruen aukeraketarako irizpide baliagarrien lanketa. 1.3. Azterketa soziolinguistikorako teknikak,

2. Atala: Hizkuntz planifikazioa. 2.1. Kontzeptua, osagai nagusiak eta programaren egituraketa. 2.2. Planifikazioaren marko soziala. Erakunde komplexuen garrantzi berezia. 2.3. Erakundeak funtzionamendu eta aldaketa sistema bezala.

3. Atala: Hizkuntz normalizaziorako planen analisia. 3.1. Erakundeen hizkuntz karakterizazioa. 3.2. Hizkuntz normalizaziorako planen diseinua. 3.3. Hizkuntz normalizaziorako plan baten elaborazio faseak. 3.3.1. Beharren azterketa: abiatze puntua. 3.3.2. Planaren sortze-lana. 3.3.3. Planaren exekuzioa. 3.3.4. Planaren ebaluazioa.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

AIZPURUA, X. (1995): Euskararen Jarraipena. Eusko Jaurlaritza.

(1997) Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996. Euskeraren Jarraipena. Eusko Jaurlaritza.

BETTELHEIM, C. (1989) Problemas teóricos y prácticos de la planificación. Tecnos. Madrid.

COBARRUBIAS, J. (1987): *Normalización y Planificación lingüística en el País Vasco*. Bastardas, A. (1991): "Sociolingüística, planificación i normalització del català", Empúries, Barcelona,

COLLERETTE, P., Delisle, G. (1988): La planificación del cambio. México.

LIPPIT, R. et al (1958): La dinámica del cambio planificado. Buenos Aires

MAINTZ, R. (1967): Sociología de la organización. Alianza. Madrid.

EUSKAL KULTUR BATZARRA (1998): Erakundeen hizkuntza normalkuntza planetarako eskuliburua eta INDEXPLA aplikazio informatikoa. Donostia. EKB.

UEU (1991): Hizkuntza ekinbideak udalerrri mailan. Planifikaziorako orientabideak. UEU Soziolinguistika Saila.

Ikasgai honetan hizkuntz plangintza interbentzio kontziente lez ulertuko da, hizkuntz egoera baten eraldaketarako zehaztutako hizkuntza politika baten baitan, urrats antolatuak sistematizatzen dituen. Egoeraren diagnosian oinarrituz, aldaketak neurriak sistematizatzeak zertan datzan ikusteaz gain, plangintzen ebaluaketa egiteko lanabesak ezagutzea ikasgaiaren helburua litzateke.

Ikasturtea hiru ildo nagusiri begira garatzen da: (1) Hizkuntza gutxiagotuen eta gutxiespen prozesuaren definizioa, politika linguistikoak sustatu behar direneko testuinguru bezala; (2) Europako Hizkuntza gutxiagotuen azterketa eta berauen normalkuntzarako politika ezberdinak; eta (3) politika linguistikoak giza sektore ezberdinetan duen eraginaren azterketa: Administrazioa, herri-administrazioa, heziketa, lanaren esparrua, teknologia, hedabideak, publizitatea eta herri mugimenduak.

P43. Hizkuntzaren soziologia II: hizkuntza politikak

HAUTAZKOA, LAUHILEKOA, KREDITUAK 6

HELBURU OROKORRAK:

Ikasturtea hiru ildo nagusiri begira garatzen da: (1) Hizkuntza gutxiagotuen eta gutxiespen prozesuaren definizioa, politika linguistikoak sustatu behar direneko testuinguru bezala; (2) Europako Hizkuntza gutxiagotuen azterketa eta berauen normalkuntzarako politika ezberdinak; eta (3) politika linguistikoak giza sektore ezberdinetan duen eraginaren azterketa: Administrazioa, herri-administrazioa, heziketa, lanaren esparrua, teknologia, hedabideak, publizitatea eta herri mugimenduak.

EGITARAU TEORIKOA:

1. Hizkuntza gutxiagotuen eta Politika linguistikoak.
2. Europako hizkuntza gutxiagotuen mapa: 2.1. Irlanda. 2.2. Baltikoa.
- 2.3. Jugoeslavia. 2.4. Albania. 2.5. Belgika. 2.6. Catalunya. 2.7. Valencia. 2.8. Galiza.
3. Hizkuntza soslaien aplikazioa Euskal Heerrian: Nafarroa eta EAE.
4. Herri administrazioa.
5. Hezkuntza sistema eta eredu linguistikoak.
6. Normalizazioa lanaren esparruaren.
7. Teknologia eta normalizazioa.
8. Publizitatea, hedabideak eta politika linguistikoak: Eraginak eta erabilpena.
9. Familia eta lehen mailako taldeak.
10. Hizkuntza eta herri mugimenduak.

EGITARAU PRAKTIKOA:

1. Normalizazioaren Plangintza Arrasateko udalean.
2. Euskal Herriko hezkuntza zentru baten azterketa soziolinguistikoak.
3. Euskal Herriko hedabideen eta publizitatearen azterketa soziolinguistikoak.
4. Irizar euskal enpresaren azterketa.
5. Teknologia berrien azterketa: Euskarazko web orriak.
6. E.H.E. eta hizkuntza normalkuntza.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

DIL, Anwar (Arg.) (1992) : The ecology of Language, Stanford, Stanford University Press.

FISHMAN, Joshua A. (1991) : Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages, Clevedon, Multilingual Masters.

FISHMAN, Joshua A. (1993) : *Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko*

saioan, in BAT, 10 zk., 37-49 or.), Donostia.

HAUGEN, Einar (1990) : *Elebitasunaren estigmatik*, in BAT, 18 zk., Donostia.

MACKEY, William F. (1993) : *Hizkuntza jokaera-aldaketa legeen bidez*, in BAT, 9 zk., 11-23 or, Donostia.

SANCHEZ CARRIÓN, José María (1981) : *El espacio bilingüe*. Donostia, Eusko Ikaskuntza.

SANCHEZ CARRIÓN, José María (1987) : *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia.

ASKOREN ARTEAN (1995a) : *Irlandera gaur*, in BAT, 15 zk., Donostia.

ASKOREN ARTEAN (1995b) : *Euskararen gizarte mugimendua etorkizunearan* : *Edukinak eta egitura*, BAT, 16 zk., Donostia.

ASKOREN ARTEAN (1995c) : *Euskararen erabileraren normalizazioa Hego Euskal Herriko Administrazioetan* : *Plangintzaren azterketa*, BAT, 17 zk., Donostia.

ASKOREN ARTEAN (1996) : *Hizkuntza plangintza Katalunian eta Euskal Herrian*, BAT, 20-21 zk., Donostia.

P4. Hizkuntza gatazka eta hezkuntza sistema

HAUTAZKOA, LAUHILEKOA, KREDITUAK 6

HELBURU OROKORRAK:

Eskolak gizakien sozializazioa eta gizarte antolaketaren zilegitasuna ahalbideratzen ditu, eta, zeregin horretan, hizkuntzak berebiziko papera jokatzen du. Hizkuntza/hezkuntza, horrela, banaezineko binomioa izaten da, eta gizartean garatzen den hizkuntza gatazka nabarmen islatzen da hezkuntza sistemaz egiten diren proposamenetan. Gatazka horren gakoak azaltzea dugu helburu nagusia, ondoko hauetan sailkatuz:

a).- Euskal Herriko irakaskuntza sistemaren garapenari eta honen inguruan sortu diren euskararen aldeko ekimen soziopolitikoei begiratzea.

b).- Hezkuntza sistemaren antolaketan egoera soziolinguistiko ezberdinen eragina aztertzea.

c).- Egungo euskal gizartearen hiru eremu politiko-administratiboetan garatzen den hizkuntza gatazkaren gakoak jabetzea.

EGITARAU TEORIKOA

1. GAIA. Hizkuntza eta hezkuntza: sozializazioa eta gizarte legitimazioa.

2. GAIA. Hezkuntza eta estatua: Estatu Hezkuntza Sistemaren sorrera.

3. GAIA. Nazio-Estatua, hezkuntza eta hizkuntza: sozializazio nazionalista.

4. GAIA. Euskara eta hezkuntza Euskal Herrian (I): Auzo Eskoletatik II. Errepublikako lehen ikastoletara.

Eskolak gizakien sozializazioa eta gizarte antolaketaren zilegitasuna ahalbideratzen ditu, eta, zeregin horretan, hizkuntzak berebiziko papera jokatzen du. Hizkuntza/hezkuntza, horrela, banaezineko binomioa izaten da, eta gizartean garatzen den hizkuntza gatazka nabarmen islatzen da hezkuntza sistemaz egiten diren proposamenetan. Gatazka horren gakoak azaltzea dugu helburu nagusia.

Hizkuntzaren gizarterabileran jokatzeko duten dimentsio ezberdinak jorratuko dira bai maila teorikoan bai enpirikoan; kontuan izanda beti, gure hizkuntzaren ikuspegi metodologikoa relationala dela, hots, hizkuntza interakzioan kokatzen dugula eta interakzioa oinarri ezinbestekotzat jotzen dugula hizkuntzaren erabilera aztertze eta ulertze orduan.

5. GAIA. Euskara eta hezkuntza Euskal Herrian (II): erregimen frankista eta ikastolaren oldarra.

6. GAIA. Ipar Euskal Herria. Ikastola eta hezkuntza publiko elebiduna. Euskararen ofizialtasunik eza, hizkuntza gatazkaren gako.

7. GAIA. Hego Euskal Herriko eraketa autonomikoa (I). Nafarroako Foru Erkidegoa. Lurraldearen sailkapena, hizkuntza gatazkaren gako.

8. GAIA. Hego Euskal Herriko eraketa autonomikoa (II). Euskal Autonomia Erkidegoa. Hizkuntza ereduak, hizkuntza gatazkaren gako.

9. GAIA. Euskara eta unibertsitate irakaskuntza. Unibertsitatearen autonomia eta gobernu autonomikoen eskumenak, hizkuntza gatazkaren gako.

10. GAIA. Hizkuntza gatazka euskal gizartean. Politizazio eta despolitizaziorako joerak hizkuntza eta hezkuntzaren arteko harremanetan. Alderdi politikoak, sindikatuak, hezkuntza arloko erakundeak eta euskararen aldeko gizarte mugimendua.

EGITARAU PRAKTIKOA

Ikasleek ikasgelan bertan eta taldeka egingo dute azken urteotako egunkarietan azaldu diren hizkuntza gatazkaren inguruko albisteen eduki eta gai nagusien sailkapen eta lanketa teorikoa.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

APPLE, Michael W. (1996): *Política cultural y educación*, Madril: Morata
BASURCO, Felix / IZTUETA, Paulo -bil.- (1993): *Euskal Eskola Berria*, Donostia: EHUKo Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila.

BERGARA, Ander (1996): *Hizkuntza eta hezkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*, Gasteiz: Ararteko.

DAVILA BALSERA, Pauli -bil.- (1995): *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

EUSKALTZAINDIA (1979): *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*, Bilbo: Euskaltzaindia.

IZTUETA, Paulo (1995): "Hizkuntza, hezkuntza eta boterea: euskal irakaskuntzaren atarian", in: APALATEGI, Jokin / PALACIOS, Xabier -bil.- (1995), *Identidad vasca y nacionalidad. Pluralismo cultural y Transnacionalización* Gasteiz: Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, 91-149 orr.

ODRIOZOLA, Joxe Manuel (1992): "Normalizazioaren filosofiaz", Larrun, 14, 19-28 orr.

TEJERINA MONTAÑA, Benjamín (1992): *Nacionalismo y lengua*, Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.

ZABALO, Julen (1994): "Bikote baten arazoak. Euskara "versus" nazionalismoa", Larrun, 21, 15-27 orr.

P20. Hizkuntza gizartean: gizarte guneak eta hizkuntza gutxiagotuak

HAUTAZKOA, LAUHILEKOA, KREDITUAK 6

HELBURU OROKORRAK:

Irakasgai hau hizkuntza gutxiagotuen gizarte-erabileran kokatzen da.

Hizkuntzaren gizarte-erabileran jokatzeko dimentsio ezberdinak jorratuko dira bai maila teorikoan bai enpirikoan; kontuan izanda beti, gure hizkuntzaren ikuspegi metodologikoa *relazionala* dela, hots, hizkuntza interakzioan kokatzen dugula eta interakzioa oinarri ezinbestekotzat jotzen dugula hizkuntzaren erabilera aztertze eta ulertze orduan.

Azken finean, irakasgai honetan bilatzen dena, hau da: hizkuntza ezberdinak elkarrekin dauden egoeretan, eta haietako bat gutxiagotua izanik, horien hiztunek nola bizi duten egoera hori, beti ere erabileraren esparrua sakonduz.

EGITARAU TEORIKOA:

1. Hizkuntza “egoeran” (situazioan): diglosiatik bata bestearekiko interakzioa.

2. Komunitatearen konplexutasunak: atxikimendu komunitateak eta komunitate diskurtsiboak.

3. Erabileraren dimentsio sinbolikoak: jatorrizkoa, mitikoa, transmisio-koa, erreferentziakoa.

4. Gizarte sareak/guneak eta erabilera (etxea, eskola, lan-mundua, kalea, komunikabideak,...).

5. Hizkuntzaren ikus-entzunezko paisaia.

6. Euskal Herriko, Galiziako, Kataluniako eta Kanadako egoeren azterketa berezia.

EGITARAU PRAKTIKOA:

Ikasleek, irakurketez gain, material ezberdinen analisiak burutuko dituzte (klasean emandako materialak, beraiek burututakoak,...) banaka eta taldeka.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

BAJTIN, M. (1990) La cultura popular en la Edad Media y en el Renacimiento. El contexto de François Rabelais. Alianza Editorial. Madrid.

DE CERTEAU, M. (1980) La culture au pluriel. Christian Bourgois. Paris.

GOBARD, H. (1976) L'aliénation linguistique. Analyse tétraglossique. Flammarion. Paris.

GUMPERZ, J. (1989) Engager la conversation. Introduction a la socio-linguistique interactionnelle. Minuit. Paris.

JAUSORO, N. (1997), *La práctica discursiva y el interdiscurso. Una propuesta metodológica para la investigación social del euskera*. UPV/EHU. Leioa

JAUSORO, N. / MARTÍNEZ DE LUNA, I. / DAVILA, A. (1998) *Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak* in BAT Soziolinguistika aldizkaria, 27.zka. Donostia.

MARTÍNEZ DE LUNA, I. / JAUSORO, N. (1998) *Euskarazko gizarte sareak hiri guneetan* in Euskara Mintzatuaren Erronkak. Editoreak: Fito Rodríguez Bornaetxea, Imanol esnaola Arbiza. UPV/EHU. Ibaeta Pedagogia, Donostia.

MARTÍNEZ DE LUNA, I. / JAUSORO, N. / BERRIOTXOA, K. / IDIRIN, I. (1998), *Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa* in BAT Soziolinguistika aldizkaria, 26.zka. Donostia.

ODRIOZOLA, J.M. (1998), *Hizkuntza, Kultura eta Gizartea*. Euskaltzaindia-BBK. Bilbo.

SANCHEZ CARRIÓN, J.M. [TXEPETX] (1987), *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. J.M. Sánchez Carrión edit. Donostia

SANCHEZ CARRIÓN, J.M. [TXEPETX] (1981), *El espacio bilingüe. Eusko ikaskuntza*.■